

ARTEA. Atalaian, Kasinoan eta itsas-argian daude 'jean' galtzetan hatsarturiko artelanak

'Jean bezain urdin' erakusketa ikusgai dago Miarritzen

Tomasz Kawiak 'Tomek' poloniar artistaren hoge eskultura handik osatzen dute

Aitor Renteria | **MIARRITZE**

Abuztuaren 16tik irailaren 30era Miarritzeko karrikak artearen abaroa bihurtu dira. Miarritzeko hiru gune berezi eskaini dizkio Tomasz Kawiak *Tomek* eskultore poloniarari. *Jean bezain urdin* izeneko erakusketa egiteko, izenak dioen bezala, Tomek *jean* galtza urdinetan hatsartu da. Tomekek 20 eskultura ekarri ditu Miarritzera; tipiena bi metro pasakoa, eta handiena lau metrokoa.

Kobreko eskultura erraldoiak itsasoari begira ezartzeko parada eskaini ziotenean, zirrara berezia sentitu zuela adierazi zuen Tomekek. «Polonian, 60ko hamarkadan, *jean* galtzak askatasunaren ikurra ziren gazteentzat», jakinarazi zuen Tomekek. «Itsasoa unibertsala da, ez du mugarik eta *jean* galtzak bezala, askatasunaren adierazpen ukalezina da», gaineratu zuen Tomekek erakusgunearen paregabekotasuna azpimarratzeko.

Erakusketa honen bidez galtzek ematen duten aukera aldarrikatu nahi izan du Tomekek. «Galtza bakoitza bakana eta ezberdina da, adierazpen sentsuala, sexuala atxikitzen du bere baitan, xedarririk gabeko begirada librea egiteko parada atsegina eskaintzen du» zehaztu zuen eskultoreak. Xede horretan oinarrituta, eskultorek forma ezberdin eta deigarriak hartzen dituzte, zango luzeak, geldirik edo mugimenduan, luze-luze edo soinaren espresioan uzkuriturik.

Gizakien sekretu tipiak, sakelean irudikaturik

Oparotasunaren Jainkosa, Unibertsoaren 'jean'-a, Ilargi eta eguzkiaren galtza dira, bertzeak bertze, eskultorearen lan ikusgarrienetarikoak. Eskultura gehienak gerritik beherakoak dira, Tomeken iritziz ikusleari doakiolako artelana bere gisara interpretatzea eta bukatzea.

Erakusketak ezohikoa izan nahi du, eta, horregatik, hunkitzeko, amets egiteko eta goza-

tzeko deia egiten die Tomek ikusleei.

Eskulturen artean, sakelek Tomeken begirada berezia erakartzen dute. «Tipitatiek, gizaki orok, bere sekretu tipiak, bere altxorak babesten ditu sakeletan, munduaren begiradari gorderik eta bihotzean bor-bor» erran zuen Tomekek. Horren adierazle dira *Sakel erraldoia*, *Bosgarren sakela*, *Sakelean dago* eta *Sakel ekologikoa* eskulturak.

Ibilbide luzea

Tomasz Kawiak 1943an sortu zen Polonian. 1970ean, boterean Alderdi Komunista zelarrik, *Tomeken samina* egin zuen, ekologiarik eta gizarte borrokari eskainirik. 1997az geroztik *Jeanaren martxa luzea* gauzatzea du xede nagusi. Egitasmoa abiatzeko Txina hautatu zuen. Lurperaturik atzeman zituzten gudiak bezala, Tomekek 369 eskultura egin zituen eta Txinan lurperatu, ondorengo belaunaldiak zirrara bera senti dezaten.

Ondoren Australiara joan zen, eta geroztik hainbat erakusketa antolatu ditu Europan, Ameriketako Estatu Batuetan eta Hego Amerikan. Orain Miarritzen da haren lana gertutik ezagutzeko aukera.



GAIZKA IROZ

Tomek artistak *jean* galtzetan oinarriturik sortutako eskultura bat.



GAIZKA IROZ

Askatasunaren ikurra deritze Tomekek *jean* galtzei.

ANTZERKIA

Antzerkia eta umorea Erriberriko jaialdiari agur esateko

Ion Orzaiz | **IRUÑEA**

Antzerki Klasikoko Jaialdia Erriberriko jendeari agur esateko prest dago, eta horretarako Cervantes, Lope de Rueda eta Alvarez Quintero anaien antzezlanak biltzen dituen ikuskizuna prestatu dute antolatzaileek.

Chejov Teatro Camara taldeak, Angel Gutierrezen zuzendaritzapean, *Los pícaros* antzezlanaren taularatuko du asteburu honetan San Pedro Klausetroko agertokia.

Ikuskizuna hiru antzezlantek osatzen dute, eta horien arteko loturak musika eta dantza pasarteak izango dira. Pasarte hauek ekitaldiaren ezauzgarri bereizgarriak izango dira, aktoreen lanarekin batera: «Zuzena eta soiltasun handikoa da, pailazen edo clownen estilistik hurbil», antolatzaileen esanetan.

Lehenengo obra Cervantesen *La cueva de Salamanca* izango da. Bertan, bikote harremanen eta infidelitatearen gorabeherak ikuspegi umoretsu batekin kontatuko dira.

Ondoren Lope de Ruedaren *Pasión de Hidalgo Brezano y su criado Cebadón* taularatuko du Chejov taldeak, eta azkenik Alvarez Quintero anaien *El cuartito de hora* lanak, Sevillako senar-emazte baten kontu umoretsuak azalduko ditu ekitaldian.



KOLDO MITXELENA Kulturunea
GANBARA
Erakusketa

asteartetik larunbata arte
10:30 - 14:00 | 16:00 - 20:30

ROSA VALVERDE



25 URTE ROSARENEAN

2002.07.17 - 2002.08.31



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

CAPITOL ANTZOKIA

Abuztuaren 21etik irailaren 1a arte
EL PRINCIPE Y LA CORISTA

Terence Rattigan-ena
Emilio Gutiérrez Caba eta María Adanez-ekin

EMANALDIAK: begiratu ikuskizunen sailean

LEHIATILAKO SALMENTA AURRERATUA: 944 232 752an
eta 944 310 310ren bitartez, edo
BBK-ko Zerbitzu Anitzeko Kutxetan.

Lehiatilako orduak: 11:30etik 13:30era eta
17:30etik aurrera



uda honetan
murgil antzerkian

